

## **KOSTUAK**

### **Kostu finkoak**

- **Webgunea (3.500 €) eta aplikazioa (15.000 €) garatzeko eta mantentzeko kostuak:**  
Honen barruan sartzen dira webgunea eta appa diseinatzeko eta programatzeko lanak, baita gero egin beharreko mantentze tekniko ere (eguneraketak, segurtasuna, akats konponketak...). Prezioak ikusita, erabaki dugu dena geuk garatzea, ez kanpoko enpresei enkargatzea.
- **Taldearen oinarrizko soldata eta coworking-espazioaren erabilera:**  
Ikastolan gaudenez, espazioa erabiltzea doakoa da, baina proiektuan parte hartzen duten kideentzat gutxieneko ordainsariak aurreikusten dira.
- **Marketin eta sare sozialetako publizitatea:**  
TikTok, Instagram edo antzeko plataformetan marka ezagutarazteko egingo diren iragarki eta sustapen kanpainen kostuak.

### **Kostu aldakorrak**

- **Eduki berrien ekoizpena:**  
Aplikazioan sartuko diren musika lasaitzaileak, bideoak, testuak edo erronka berrien sorrera. Eduki gehiago sortzen dugun heinean, kostu hori handitu edo txikitu egingo da.
- **Psikologo, coach eta musikari freelance-en ordainsariak:**  
Aditu hauek sortzen duten edukiaren edo eskaintzen duten aholkularitzaren arabera, ordainsariak aldatu egiten dira. Zenbat eta ekarpen gehiago, orduan eta kostu handiagoa.
- **Sare sozialetako publizitate digital malgua:**  
Kanpaina bakoitzean zenbat inbertitu nahi dugun erabakiko dugunez, gastu hau aldagarria da. Uneko helburuen arabera igo edo jaitsi daiteke (adibidez, kanpaina berezietan diru gehiago jartzea).
- **Eskala-ekonomiaren abantailak:**  
Erabiltzaile kopurua handitzen den heinean, kostu unitarioak jaisten dira. Bereziki nabari da hosting edo zerbitzu digitalen kostuetan: erabiltzaile gehiago izan arren, ez da proportzionalki gehiago ordaindu behar.
- **Hedapen-ekonomiaren abantailak:**  
Behin edukiak sortuta, hizkuntza edo merkatu berrietara zabaltzea oso merkea da. Eduki berdinak erabil daitezke ia gastu gehigarriarik gabe, itzulpenak edo egokitzeak txikiak baino ez direlako behar.